


19 urte beteko ditu datorren Irailean ermuar gazte honen. Duela gutxi 400 gazteren artean, Movi Star motoziklismo txapelketan parte hartzeko aukeratua izan da 125 zentimetro kubikotan, froga desberdin ugari irabazi ondoren. Espainiako moto gidari gazte onenekin ari da lehian bere aita duelarik laguntzaile nagusia.

"Nire ametsa moto gidari profesionala izatea da"

Asier Muiños



-Noiz izan zenuen aurreneko motoa?

Gogoan dut. 14 urte izango nituen. Zortzigarren maila gainditzea lortzen banuen aitzak bat ekarriko zidala agindu zidan eta bere hitza bete behar izan zuen.

-Nolatan sortu zitzaizun zaletasuna?

Aita dela ta. Oso gazte nintzenetik berak zuen motoan ibiltzen ninduen. Bera ere oso motozalea da.

-Zaletasunetik zirkuitoetara bada alderik...

1997an gazteeentzako Apriliako Kopa lehiaketa zegoela irakurri genuen aldizkari batean, motoa erosi eta probatzea erabaki genuen.

-Nola joan zen saikera hura?

Gidari bizkorra nintzela ohartu ginen eta merezi zuela hortan jardutea.

-Duela gutxi Movi Star txapelketan parte hartzeko hautatu zaituzte...

Espainia osotik 6000 gaztek eman

zuten izena baina hoietatik kurrikulum-a edo ospea zuten 400ek soilik egin zituzten frogak. 15-16 urte bitarteko gidari gazte onenak hautatzea zen arrazoi. Nik 19 egingo ditut beraz adina zen nere oztopo nagusia. Hala ere, 400 hoietatik bigarren denbora onena egin nuen eta azkenean aukeratu zituzten hogeitabost gazteen artean nago.

-Orain arte motoa eta jantziak zuen esku zeuden...

Movi Star txapelketa korritzeko motoa eta jantzi guztiak heuren ematen dizkigute. Mekanikoa ere beraien esku dago. Entrenamenduak ere beraiek antolatzen dituzte. Txapelketa honetan onentsuenak Espainiako txapelketan parte hartuko dute eta ondoren Munduko Txapelketan lehiatzeko aukera izan dezakete.

Motoa goitik behera ezagutu duzu iada...

Mekanikaz nere aita eta Ondarruko bere lagun bat arduratzen dira. Nik

probak egin ondoren zer hobetu daitekeen esaten diet.

-Non egiten dituzu entrenamenduak?

Alderdi fisikoa hemen bertan egiten dut. Mountain-bikean ibili eta soinketa pixkat. Gidari saioak, osterata Pau-n egiten ditugu merkeago izateaz gain, sarritan jende gutxi ibiltzen bait da.

Diru gastu asko izango duzue..

Gidatzeko alokairua 3000 pezeta da orduerdi bakoitzeko, gasolina litro bakoitzak 600 pezeta inguru balio ditu. Horrez gain, bidaiak, motoaren piezak, eta abar...

Aitaren laguntzari esker aurrera egiten ari gara nola edo hala.

-Etorkizuna nola ikusten duzu?

Hori denborak esango du. Momentuz pozik gaude egindako denborak oso itxaronpetsuak baitira. Ea emaitzek lagundu eta norbaitek gudan konfidantza izaten duen.

Asier Ibaibarriaga

MIGUEL Harategia

T
X
O
R
I
Z
O
A
K



O
D
O
L
O
S
T
E
A
K

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA (Bizkaia)

URRETA Burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit Haltzariak

Zeharkalea, 8 Telf.: 17 65 61 • ERMUA

ZABAL



ERMUA